


Mentoreentzako informazioa



Pertsona batek, bizitzako momenturen batean, borondatez, beste pertsona bat babestu eta lagundu nahi duenean.

Zer da URRETXINDORRA?

Mentoretza-proiektua da eta honen bidez unibertsitako edo goi mailako ikasleek zu bezalako 10 eta 14 urte bitarteko neska edo mutil bat laguntzea erabakitzen dute, haien aisian eta denbora-tarte librean.

Kasu honetan, pertsona batek beste pertsona gazteago bat laguntzea erabakitzen du, zure interes eta zaletasun antzekoak dituen.

Nor da MENTOREA?

18 eta 30 urte bitarteko ikaslea da eta zurekin, astero eta eskolaz kanpo, hainbat ordu emango ditu.

Pertsona honek borondatez hautatzen du bere denbora zurekin ematea, zu ezagutzeko helburuarekin.

Nor da MENTORE-HARTZAILEA?

Proiektuan parte hartzen duen ikastetxeren batean ikasten duen edozein gazte, 10 eta 14 urte bitartekoa.

Zer egingo duzue elkarrekin?

Elkarrekin adostuko dituzue aisian egingo dituzuen jarduerak: kirola, jarduera irekiak, jarduera kulturalak, liburutegira bisitak, unibertsitatera, museoetara, meriendatu, leku berriak ezagutu, eta abar.

Ez dizute eskolako lanetan lagunduko, hori ez baita proiektu honen helburua.

Biak elkartuko zarete, mentorea eta zu, nahiz eta zenbaitetan taldeko irteerak egingo dituzuen, proiektuan parte hartzen duten gainontzeko bikoteekin.

Zetarako parte hartu proiektuan?

- ✚ Ongi pasatzeko!
- ✚ Orain arte inoiz egin gabekoak egiteko! Leku eta pertsona berriak ezagutuko dituzu.
- ✚ Konfiantzazko lagun berria izateko.
- ✚ Hemen hitz egiten diren hizkuntzak hobe ezagutzeko.
- ✚ Zeure buruarekin eta gainontzekoekin hobe sentitzeko.

Zergatik?

Agian zeure bizitzako momentu honetan ongi datorkizu pertsona heldu bat (baina ez gehiegi) ondoan izatea, denbora eskainiko dizun norbait, entzuten dakiena eta ongi pasatzen lagunduko dizuna, elkarrekin hazi eta, hala, indartsuago senti zaitezten askotan izaten ditugun zalantza txiki eta beldurrei aurre egiteko.

Eta zer eskaintzen diozu zuk mentoreari?

Gauza asko dituzu erakusteko, guztiok ikasten dugu elkarrengandik, batak bestearengandik.

Noiz?

2018/19ko ikasturtean.

Astean behin geldituko zarete, **3 orduz**.

Zer ardura dituzu?

- ✚ Zure mentorearekin duzun hitzorduetara joan.
- ✚ Ezin baduzu joan, garaiz abisatu zure mentoreari.
- ✚ Berandu bazoaz ere, mentoreari jakinarazi.
- ✚ Proiektuko hasierako eta itxierako jaialdietara joan.
- ✚ Proiektuak irauten duen bitartean edozein zalantza izanez gero, ikastetxean edo SOS Arrazakerian galdetu.

GOGORATU!

Proiektuan parte hartzeko ezinbesteko baldintza nahi izatea da. Primeran pasako duzu eta hobe sentituko zara. Momentu honetan nahi ez baduzu edo gogorik ez baduzu, ez dago arazorik, baina esaiguzu.